

## Funtsezko elkarteak

Hau da, sektore honetan jada merkatuan dauden enpresak gure hornitzaile bilakatuko ditugu eta dutxa berritzaile bat fabrikatzeko eskatuko diegu. Guk dutxa hori saldu eta instalatzeko zerbitzua emango dugu.

Horretarako funtsezkoa da enpresa ezberdinekin elkartzea gure ideia aurkezteko, eta ondoren interesatuak bat baino gehiago badira, aukeraketa bat egitea. Gurekin lana egiteko prest egon zitekeen enpresa bat da adibidez **Ecoducha S.L.** Ecoducha S.L eraikuntzaren sektoreko profesionalen korporazio gazte eta dinamikoa da, bezeroen ongizatean eta ekonomian soilik pentsatzen duena. Honek, Katalunian eta EAE-n egiten du lana, eta enpresa ezberdinez sorturiko sozietate mugatu bat da, eta horregatik gu ere hauen lankide izan gitezkeela pentsatu dugu. Gainera, enpresak defendatzen dituen baloreekin bat gatoz eta merkatuan duela urte gutxi sartu zen enpresa bat da, hots, gure enpresaren antzeko perfila dute.